



Nazabal, Xalto eta Erleta
ikastetxeetako

SORMEN LEHIAKETA
2025

AURKIBIDEA

1. saria 1. zikloan

Kobazulo misteriotsua 4

2. saria 1. zikloan

Txorizo eta Babaren istorioa 5

3. saria 1. zikloan

Joselontxoren eta Ramontxitoren gaiztakeriak 6

1. saria 2. zikloan

Maria Erregina 7

2. saria 2. zikloan

Hiru esploratzaileak 8

3. saria 2. zikloan

Hondartzako lehiaketa 10

1. saria 3. zikloan

Izarren egunerokoa 12

2. saria 3. zikloan

Izena galdu zuen neska 14

3. saria 3. zikloan

Jolas-parkea 17

Azalpena 18

KOBAZULO MISTERIOTSUA

Bazen behin familia zoriontsu bat, baserri zaindu batean bizi zena. Haien txita txikiari ez zioten kasu handirik egiten. Txita txikia basora irten eta galdu egin zen. Geroz eta sakonagoa zegoen basoa eta orduan kobazulo bat ikusi zuen. Kobazulora sartu eta itzal handi bat ikusi zuen. Korrika atera zen eta oihuka hasi zen bere familiari, baina oso urruti zegoen. Orduan erreka bazterrean negarrez hasi zen.

Hortik 2 minutura lamia bat agertu zitzaion txita txikiari eta hauxe esan zion:

- Niri kasu egiten badidazu zure etxeraino eramanen zaitut.
Eta txita txikiak kasu egin zion eta lamiak etxeraino eman zuen.

Gauza da oraindik txita txikiak ez dakiela zer dagoen kobazulo barruan. Berriz kobazulora abiatu zen, baina hobeki pentsatu eta buelta eman zuen. Etxera bueltatu eta ondoko baserriko txitekin jostetan ari da.

Ekhia Bidarte Cueli

TXORIZO ETA BABAREN ISTORIAO

Istoria hau Afrikan gertatu zen duela 1000 urte. Protagonistak bi animalia ziren, bata uretan bizi zena eta bestea lehorrean bizi zena. Zezenak Txorizo izena zuen eta Marrazoak Baba izena zuen. Zezena beltza zen eta marrazoa zuria zen.

Txorizok ura edan nahi zuen, baina momentu horretan Baba uretan zegoen eta nahi gabe Baba irentsi egin zuen. Babaren ama etorri eta Txorizo irentsi egin zuen.

Bukaeran, Babaren ama konturatu zen Txorizo oso jatorra zela eta horregatik, berriro bere ahotik uretara bueltatu zuen.

Bianca Lazar



JOSELONTXOREN ETA RAMONTXITOREN GAIZTAKERIAK

Orain dela 70 urte Iruñean gertatu zen istorio bat da hau. Protagonistak Joselontxo eta Ramontxito ziren eta anaiak ziren. Joselontxok bizar marroia zeukan eta Ramontxitok koleta luze bat zeukan.

Joselontxok Ramontxito asko zirikatzen zuen. Egun batean, Ramontxito oso despistatuta zegoen eta atzera begira zegoenez, farola batekin estropozu egin zuen eta Joselontxo parrez hasi zen.

Amaieran, Ramontxitok Joselontxori esan zion ez zaiola gustatzen bera zirikatu eta molestatzeari, eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Iruñeko plazan.

Maddi Samsó Lujanbio

MARIA ERREGINA

Bazen behin Maria izeneko erregina bat, Oliteko gaztelu ospetsuan bizi zena. Erreginak 70 urte zituen eta oso aspergarria zen. Peru morroia ere han bizi zen, oso utzia zena, eta Ramon jabea ere bai, oso zakarra eta zorrotza zena.

Egun batean Mariak 12 gauza eskatu zituen batera eta morroiak erreginarenean esanak egiteari utzi zion. Erregina asko haserretu zen, eta jabea ere bai. Jabearen erabakia morroia Oliteko gaztelu ospetsutik botatzea izan zen. Morroi zaharra bota eta beste baten bila hasi ziren, eta horretarako txapelketa bat antolatu zuten, morroi onena aukeratzeko txapelketa.

Erreginak proba bat pentsatu zuen morroi onena aukeratzeko: sukaldatzeko ontziak ahalik eta azkarrena garbitzen zituena izango zen irabazlea. Epailea azalpenak ematen hasi zen, eta 2 ordu ondoren, azkenean mareatu egin zen. Maria erreginak epaile oso on bat ezagutzen zuen, baina zoritxarrez, Nikaraguan zegoen oportetan eta ez zegoen astirik beste epaile bat aurkitzeko.

Lehiaketa hurrengo asterako utzi zuten azkenean, baina erreginak morroi bat behar zuen astea pasatzeko. Olite oso txikia zen, ordea, beste morroi bat aurkitzeko, hobeto esanda, ezinezkoa zen fundamentuzko morroi bat aurkitzea. Oliten morroi bat bakarrik zegoen eta erreginarenean morroi zaharra zen, hau da, Peru. Aste batera oraindik epailea oso gaixorik zegoen, eta Mariak ezagutzen zuen epaileak Nikaraguan jarraitzen zuen. Bi aste beranduago itzuli zen Mariak ezagutzen zuen epailea Iruñera, izan ere Iruñekoa zen, eta Iruñean bizi zen.

Orduan Oliteko plazan elkartu ziren denak eta probarekin hasi ziren morroi hautagaiak. Proba egiteko minutu 1 zuten gehienez. Azkenean proba hori erreginarenean morroi zaharrak irabazi zuen, hau da, Peruk. Ordutik morroi zaharrak tratatu onak eman zizkien erreginari eta gazteluko guztiei, eta denak pozik bizi izan ziren.

Katu-katu ipuina bukatu.

Enara Ugartemendia Arantzeta



HIRU ESPLORATZAILEAK

Baziren behin hiru lagun Leire, Mikel eta Alaia izena zutenak. Hiru lagunak mendialdeko herrixka batean bizi ziren. Leire, Mikel eta Alaiaren ametsa esploratzaileak izatea zen.

Beraien herrian bazegoen denda bat oso zaharra zena. Bertan agure zahar bat bizi zen eta bera ere esploratzailea izan zen bere garaian. Hiru lagunak agureari galdera bat egin zioten:

- Aizu, ba al dakizu gauza bat?
- Gure ametsa esploratzaileak izatea da!

Agurea pentsakor geratu zen momentu batez, eta esan zuen:

- Badut zuentzat gustatuko zaizuen lan bat -hiru lagunak adi-adi geratu ziren.- Munduaren beste puntan hutsik dagoen herri bat dago, inor ez dena iritsi oin puntarekin ukitzera ere.

Lagunek aurpegia aldatu zuten. Agureak mapa eman zien eta hirurak agureak esandako herrira abiatu ziren. Gauzak hartu eta Leirek esan zuen:

- Ez dakit zuek, baina nik ez dakit mapa bat irakurtzen!
- Nik ere ez!- esan zuen Mikelek.

Alaiak aurpegi txarra jarri zuenez, ezer esan gabe agurearengana joan ziren hiru lagunak. Agureak mapa erabiltzen erakutsi zien eta hiru lagunak berriz abiatu ziren. Egun osoa behar zuten munduaren beste aldean zegoen herrixkara iristeko.

Iritsi eta mapa begiratzen hasi ziren. Leirek aurpegi txarra jarri zuen. Lagunek zer gertatzen zitzaion galdetu zioten.

- Iritsi gara herrira, baina ez daukagu herriko maparik.

Mikel pentsakor geratu zen. Mapa hartu eta buelta eman zion. Hiru lagunak irribarre txiki bat egin zuten. Leire oso beldurtuta zegoen, baita Alaia ere. Mikelek ez zuen inongo momentutan adierazi.

Esploratzaile lanetan zebiltzan lehen aldia zenez, hirurak beldurtuta zeuden. Bat-batean Leirek esan zuen:

- Aizue, ezin gara horrela egon! Gu oso ausartak gara, uste duzuenak baino gehiago.

Hiru lagunak abiatu ziren. Ordu bat zeramaten oinez geratu gabe eta, bat-batean, "krask!" entzun zuten. Lagunek lehenengoan ez zioten kasu handirik egin, baina "krask, krask, krask...!" entzun zuten berriro. Hiru lagunak korrika ihes egin zuten. Beste ordu pare bat eman zuten korrika. Ez zuten jakin soinua nondik zetorren, baina ez zuten gehiago entzun.

Azkenean, bukatu zen arriskua. Hiru lagunak herrixka horretara iristean, harrituta geratu ziren. Oso polita zenez, herrira jendea gonbidatu eta herrixka bat bilakatu zen. Hiru esploratzaileak beraien herriko goxotasunera itzuli ziren eta handik aurrera hiru lagunak esploratzaile bilakatu ziren.

Handik aurrera jendea oso pozik bizi izan zen.

Garazi Barandain Aranalde



HONDARTZAKO LEHIAKETA

Bazen behin hirukote bat, Joxepa, Pepita eta Kanboi izenekoak. Joxepa alaia eta txintxo zen, Pepita, aldiz, tristea. Kanboiri zaldian ibiltzea gustatzen zitzaion eta alaia zen.

Egun batean hiru lagunak hondartzara joan ziren. Egun horretan animalia asko zebiltzan hondartzan eta bozgorailuetatik gauzak lapurtzen ari zirela abisatu zuten. Joxepa, Pepita eta Kanboi esan zutenari kasurik egin gabe lasai ederrean eseri ziren.

Bat-batean, ordea, Kanboiri gauzak desagertzen hasi zitzaizkion. Orduan lagunei kontatu zien, baina Joxepa eta Pepitak ez zioten sinetsi. Geroago Joxepari ere toaila desagertu zitzaion, eta Kanboik esan zion norbait zebilela gauzak lapurtzen, baina lagunak berriro ere ez zioten kasurik egin. Hortik pixka batera Pepitari koadernoak lapurtu zioten, eta orduan Pepita eta Joxepak Kanboiri sinetsi eta kasu egin zioten.

Geroxeago animalia bat ikusi zuten beraien gauzekin. Hirurak oso haserre animaliarengana joan ziren esanez:

- Zergatik lapurtzen dituzu gauzak?

Eta erantzun zien animaliak:

- Guk honelako gauza politak ez ditugulako.

- Bada eskatu, baina ez lapurtu!- erantzun zioten hiru lagunak.

- Oraintxe bueltatuko dizuet dena, baina lehenengo proba batzuk egin behar dituzue!- erantzun zuen animaliak.

- Mmm... ados!

Probak hauek ziren: lasterketa bat egitea eta ipuin bat asmatzea. Probak oso zailak ziren. Animalia gaiztoak galtzen bazuen, gauza guztiak itzuliko zizkien Joxepa, Pepita eta Kanboiri. Eta irabazten bazuen berriz, ez zizkien gauzak itzuliko.

Lasterketan Kanboik hankan min hartu zuen eta animalia gaiztoak tranpa egin zuenez, berak irabazi zuen. Bigarren erronka berriz, ipuina asmatzea, oso erraza izan zen hiru lagunentzat. Joxepa, Pepita eta Kanboik ideia handiak izan zituzten beraien ipuinerako, adibidez: mendian ume bat galtzen zela, igerilekuan pultsera galtzen zitzaiola, etxera lagunak eramatean lagun batek min handia hartzen zuela eta eskolan umeak desagertzen ari zirela. Lehiaketan ideia guztiak elkartu zituzten, ipuin zoragarri bat sortu zuten denen artean eta hiru lagunak ipuinak irabazi zuen bigarren proba.

Azkenean, lehenengo proban animalia gaiztoak tranpak egin zituzenez eta bigarrena Joxepa, Pepita eta Kanboik irabazi zuten, animalia gaiztoak beraien gauzak eman zizkien. Eta handik aurrera oso ongi bizi izan ziren eta lagun handiak izan ziren.

Arhane Zabaleta Barandiaran



IZARREN EGUNEROKOA

2023-6-3

Eguneroko maitea, Izar naiz, 11 urte ditut eta Margari da nire irakaslerik gogokoena. Altua naiz, begi urdinekin (jendeak berdeak direla esan arren), ile horia eta fina naiz. Nire lagunik onena Lily da. Ni baino 3 cm txikiagoa da, begi marroiak eta ilea ezin politagoa dauka, marroia.

2023-6-5

Gaur klasean zeharo aspertua egon naiz. Ikasgelako atetik nire bihotzeko azukre koxkorra sartu arte. Mutil berria zen! Bera altua, ile horia, begi berdeak, eta zeruko jainkoak baino askoz politagoa da. Baina Margari irakasle madarikatu horrek ikasgelako beste puntan kokatu du bere mahaia, Adriana mukizu horren ondoan.

Uste dut nire irakasle gogokoenarena berriro ere pentsatu beharko dudala. Esan bezala, Adrianaren ondoan eseri da. Adriana neska "popularren" taldeko mandataria da, denek berak esaten duenari jarraitzen diote, jasanezina da.

2023-6-7

Gaur Lilyrekin gelditu naiz inguruneke azterketarako ikasteko, baina 15 minutuz bakarrik egon gara koadernoaren aurrean. Lily mutil berriaren gaia atera du eta ezin izan dut kontzentratu. Mutil berriak Dani izena duela esan dit. Leihotik begiratu eta Dani Adriana eta "Adrianatxoekin" hitz egiten ari zela ohartu naiz. Benetan? Zergatik? Zertaz? Adriana mukizu horrek nire bizitza akabatu behar du.

2023-6-10

Bai, azkenean! Ofizialki Margari nire irakaslerik gogokoena da. Eskola bukatzeko 8 egun falta direnez, Margarik bikoteka jarri gaitu udaran zer egitea gustatuko litzaigukenera buruzko lan bat egiteko. Eta, ezetz asmatu zeinekin naizen? Bai, Danirekin naiz! Ezin dut sinetsi! Zeruko miraria da! Arratsaldean Daniren etxean gelditu gara Dani eta biok. Adriana jeloskor utziz. Nire bizitzako egunik onena da!



2023-6-14

Daniren etxean egon naiz, lana bukatu dugu eta nondik datorren esan dit. New York-etik heldu da, bere gurasoen lanarengatik bizi zirela han. Benetan? New York? Ba al dago zerbait "guayagoa"?

2023-6-15

Nire bizitzak ez dauka zentzurik! Margarik akats bat zela eta Adriana eta ni elkarrekin garela esan digu. Inoiz ez dut ahaztuko Margarik berri txarra ematerakoan Adrianak jarri duen aurpegia, niri alergia izango balit bezala. Arratsalderako gelditu gara.

2023-6-17

Adrianaren etxean nago, komunera joan da eta bere egunerokoa aurkitu dut. Ireki dudanean "Izarren laguna izan nahi dut" hitzak irakurri ditut. Itxaron, gelara dator!

2023-6-18

Lana primeran atera zaigu. Margarik 9 jarri digu. Ongi dago ezta? Jolasgaraian Adriana, Dani, Lily eta ni elkarrekin aritu gara. Uste dut lagun berriak egin ditudala. Hurrengo urtera arte!

Ane Zabaleta Prada



IZENA GALDU ZUEN NESKA

Bazen behin neska bat Goizuetan bizi zena, 12 urte zituen eta oso alaia zen. Jaiki, gosaldia eta jantzi ondoren konturatu zen bere izena ahaztu zuela. Orduan, etxetik atera eta izena berreskuratzen saiatu zen.

Bere izena berreskuratzeko bidean zihoala, arrano bat ikusi zuen eta karraka egiten hasi zen. Baina ezin zuen ongi hegan egin. Bat-batean, BUM! arranoa erori zen eta laguntzera joatea erabaki zuen. Iritsi zenean, lurrean ikusi zen eta neskak al baitariari deitu zion. Etorri bitartean, berarekin geratu zen. Arranoak eskertzeko **A** letra eman zion.

Gero, buelta bat ematera joan zen eta bitartean bere buruari A letrarekin zer egingo zuen galdetzen zion. Ondoren, Donostiara joan zen eta Kontxan paseo bat ematera abiatu zen pentsakor. Bertan, izurde bat ikusi zuen saltoka, baina mina zuen. Neskak nabaritu zuen laguntza eske zebilela eta laguntzea erabaki zuen. Berarengana hurbildu zen eta ikusi zuen marrazoak hozka eginga ziola. Orduan, sendaketa egin zion laguntzeko eta izurdeak **I** letra eman zion eskertzeko. Bitartean, Kontxako paseoarekin segituz, A eta I letrarekin zer egin behar zuen pentsatzen zuen.

Itsas bazterrean olagarro batekin egin zuen topo. Malkoa zerion begietatik, izan ere, atsekabetuta zebilen bere ume txikiaren bila. Neska eta olagarroa, biak, itsasertzeko harkaitz zulo guztiak begiratu ondoren, harkaitz txiki batek bere tentakuluetakoa bat zapaldu ziola ikusi zuten. Neskak harkaitza altxatu eta olagarro amak bere umetxoa atera zuen. **O** letra eman zion neskari eskertzeko. Oraingoan ere bere buruari berdina galdezka Donostia hirian sartu zen.

Espaloitik zihoala robot bat ikusi zuen, baina, torloju bat falta zuela nabaritu zuen. Oso seguru ez zegoenez, berari galdetzea zela onena pentsatu zuen. Galdetu zion eta baietz erantzun zion. Neska, dendara joan zen eta torlojuak erosi zizkion. Robotarengana joan zen eta torlojuak eman ondoren robotak **R** letra eman zion eskertzeko. Gero, beti bezala, bere buruari berdina galdetzen zion: "zer egingo dut A, I, O eta R letrarekin?".

Ondoren, autobusa hartu eta Goizuetara joan zen bere amonaren baserrira. Bidean zihoala asto bat ikusi zuen. Oso kargatuta eta nekatuta zegoen. Beregan hurbildu zen.

- Nola duzu izena? - galdetu zion neskak.
- Astotxo deitzen didate - erantzun zion.
- Nondik heldu zara? - galdetu zion berriro.
- Uste dut Aulesti izena duela nire herriak - erantzun zion asto gaixoak.
- Ai ama... Hori oso urruti dago. Utzi niri, lagunduko dizut - esan zion neskak harrituta.
- Eskerrik asko. Oso pertsona ona zarenez gauza bat emango dizut eskertzeko - erantzun zion Astotxok.
- A** letra eman zion. Baina, neskak ez zuen ulertzen, beraz, astoari galdetzea erabaki zuen:
- Galdera bat egin diezazuket?
- Noski! - astotxok.
- Gaur animalia askori lagundu diet eta medaila bana eman didate, baina ez edozein medaila, letra bat zeukaten denek. Zer esan nahi dute letra horiek?
- Jakin nahi baduzu, galdetu zure amonari, berak asko daki - erantzun zion astoak.
- Bale, eskerrik asko - esan zuen.

Ondoren amonaren etxera joan zen eta berdina galdetu zion:

- Kaixo amona!
- Kaixo!
- Galdera bat egingo dizut, bai?
- Noski, galdetu nahi duzuna.
- Gaur animalia askori lagundu diet eta denek letra bat zeukan medaila bat eman didate. Zure etxera bidean nentorrela, asto batek ere A medaila eman dit eta ondoren zertarako diren galdetu diot. Zuri galdetzeko esan dit. Zer esan nahi dute medaila hauek? - galdetu zion.
- Zuk gaur goizean, amak esan didanez, izena ahaztu duzu, ezta? - esan zion amonak.
- Bai, eta oraindik ez dut berreskuratu!



JOLAS-PARKEA

- Saiatu al zara letrak elkartzen? - galdetu zion.
- Ba... ez! - erantzun zion neskak.
- Ba, probatu. Baina animaliek eman dizkizuten ordenaren arabera probatu! - esan zion amonak.
- Ados, probatuko dut - esan zion neskak probatzeko irrikitan.

Azkenik, neskak probatu eta... A, I, O, R, A = Aiora izena lortu zuen. Horixe zen bere izena!! Neska oso pozik jarri zen eta azkenean etxera joan zenean amari esan zion.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Goizuetako plazan.

Eila Larralde Arotzena

Bazen behin gizon bat. Gizonak Jonathan Smith izena zuen eta oso ospetsua zen. Aktorea zen eta pelikula askotan parte hartu zuen. Jonathan estatubatuarra zen. Bere ospeaz aspertuta zegoen eta bizitzera herri lasai batera joatea erabaki zuen. Ikertzen aritu zen eta bere birraitona Goizueta izeneko herri batekoa zela ikusita, oso leku polita iruditu zitzaion. Maletak egitea eta Goizuetara joatea erabaki zuen.

Ailegatzean, herri txiki bat zela ikusi zuen. Umeak aspertu egiten ziren. Hori ikusita, Jonathanek ideia bat izan zuen: jolas-parke bat eraikitzea. Horretarako, leku egoki bat bilatzen hasi zen. Herriko leku guztiak begiratu zituen eta Josefinaren belardia iruditu zitzaion egokiena. Hurrengo egunean, Jonathan Josefinarekin hitz egitera joan zen eta bere asmoa zein zen azaldu zion. Josefinari ez zitzaion ongi iruditu eta bere ardiak nongo belarra jan behar zuten galdetu zion. Jonathanek jolas-parkeko ur-txirrista eraikitzen uzteko eskatu zion eta probatu eta gero gustatzen ez bazitzaion, jolas-parkearen ideia alde batera utziko zuela adierazi zion.

Ur-txirrista eraikitzen hasi ziren eta 3 astetan bukatuta zegoen. Ur-txirristak 100 metro zituen eta bukaeran igerileku handi bat. Jonathan Josefinaren bila joan zen eta ur-txirrista erakutsi zion. Josefina igo zen ur-txirristara eta oihuka jaitsi zen. Jonathanek gustatu ez zitzaiola pentsatu zuen, baina Josefinak oso dibertigarria zela eta berriro jaitsi nahi zuela esan zion.

Horrela, Goizuetako umeak ez ziren gehiago aspertu eta Josefina ere ez.

Ilargi Indakoetxea Mendizuri



Aresoko Nazabal, Goizuetako Xalto, Leitzako Erleta ikastetxeek eta eskualdeko Euskara Zerbitzuak antolatu dute **Sormen Lehiaketa** hau hiru eskoletako ikasleentzat.

Idazketan eta irakurketan eragitea da egitasmo berri honen helburu nagusia, bereziki, ikasleen idazteko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzea. Horrekin batera, baita eskualdeko hiru ikastetxeetako ikasleen harremanak indartzea ere.

LHko 1. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleek parte hartu dute lehenbiziko Sormen Lehiaketa honetan, eta guztira 284 ipuin-labur aurkeztu dituzte. Horietatik 9 lan aukeratu dira, ziklo bakoitzeko hiruna lan onenak. Irabazle izan diren 9 ipuin horiek liburuxka honetan jaso dira.

Zorionak parte hartzaile guztiei, egindako lanengatik!



